

<i>Berdintasun Zerbitzua</i>		<i>Getxoko Udala</i>
Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BATZARRA		

Bileraren datuak:

Eguna: 2017-11-02

Lekua: Santa Klara Jauregia

Ordua: 17:00 – 16:30

Bertaratuak:

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo Urbitzazu

Roda: Clara Lorenzo Quevedo

Mujeres con Voz: Luciana Davies

EH Bildu: Arantza Gutierrez Paz

Ciudadanos-Herritarrak: Carlos Escalera Lana

EAJ-PNV: Elena Coria Yanguas

GUK: Susana Andollo Gonzalez

Udal Talde Sozialista: Josefina García Palacio

Talde Popularra: Susana de Cos Yañez

ELA: Elvira Lemona Díaz

Kontseiluburua: Keltse Eiguren Alberdi

Idazkaria: Bego García Martínez

Berdintasun Zerbitzua, Jabekuntza Eskola eta Beldur Barik: Ainoa Al Rifaie Selas

Ez dira etorri:

Eskuz-esku

Gizatiar

Berritzegune

Gai-zerrenda:

- Aurreko akta onartzea
- Azaroaren 25a: Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna. Beldur Barik
- Emakumeen aurkako indarkeriazko kasuetan erantzun publikoa emateko protokoloari buruzko tailerra

- Galde-eskeak

Aurreko akta onartzea

Aho batez onartu da aurreko batzarreko akta.

Azaroaren 25a: Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna. Beldur Barik

Eudelek eta Emakundek, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela-eta, egin duten **adierazpen instituzionalari** buruz, Berdintasun teknikariak esan du Ciudadanosek bakarrik egin dizkiola ekarpenak. Modu berean, gainerako alderdi politikoak eta elkarteak astebeteko epean ekarpenak egitera gonbidatu ditu.

GUKek esan du ez dagoela ados adierazpenarekin, besteak beste, ez dituelako aipatzen adierazpen horretan jasotako helburuak gauzatzeko asmoz udalak bideratuko dituen baliabideak.

Berdintasun zinegotziak esan du behin betiko adierazpen instituzionala azaroaren 24an onartuko dela, Bozeramaileen Batzarrean.

Aurtengo azaroaren 25erako kanpainan, berdintasun teknikariak esan du **ekitaldi nagusiak**, Virginia Imazen antzerkia eta "Volar" filmaren emanaldia adostuta daudela dagoeneko. Gainera, puntu morearen pankartak jarriko diren eraikinak aipatu ditu. Esan du, halaber, azaroaren 16an prentsaurreko bat egingo dela, berdintasun zinegotziak kanpaina zehatz-mehatz azal dezan.

Berdintasun teknikariek esan dute **bideo** bat egiten ari direla, sare sozialen bitartez zabaltzeko asmoarekin. Bertan, azaroaren 25ean jorratu beharreko hiru egoera larri aztertuko dira: 1) bikote-harremanetako kontrola gazteen artean, 2) maskulinitasun hegemonikoa, eta 3) zaintzaren feminizazioa. Kontseiluaren aurrean egoera horietako baten zirriborroa aurkeztu da eta zenbait ekarpen jaso dira.

Hiru egoera horiek jaietako kanpainan erabili ziren **totemetan** ere erakutsiko dira, komiki formatuan.

Azkenik, berdintasun teknikariak jakinarazi du email bat bidali zaiela elkarte guztiei, galdetzeko **elkarretaratze edo manifestaziorik** egingo duten azaroaren 25aren harira, egitarauarekin egiten diren karteletan sartu ahal izateko.

Beldur Barik programari dagokionez, Ainoa Al Rifaiek orain arte landutakoa azaldu du.

Berdintasun zerbitzuak udalerriko eskolei Beldur Barik jarrera lantzea proposatu die. Hau da, genero indarkeria ikuspegi guztietatik lantzea: sinbolikoa, ekonomikoa, fisikoa eta emozionala. Modu berean, bideo-forum bat egitea proposatu die, Beldur Bariken material didaktikoarekin.

Orain arte San Nikolas Ikastolak, Aizkorrik eta Fadurak bakarrik erakutsi dute interesa, aurreko urteetan ere parte hartu baitute.

San Nikolas ikastolarekin esku hartzea adostu da: ordubeteko hiru saio ikasleekin eta irakasleekin 3 orduko prestakuntza.

Aizkorri eta Fadurari proposatu zaie bi saio egitea (bat ikasleekin eta beste bat irakasleekin), ordu betekoa bakoitza. Berrespenaren zain gaude.

Gazteria Arlotik esan digute aurten ezinezkoa litzatekeela egitaraurik egitea, dena itxita daukatelako, baina datorren urtean ekin ahal zaiola eta proposamen berriak prestatu.

Emakumeen aurkako indarkeriazko kasuetan erantzun publikoa emateko protokoloari buruzko tailerra

Berdintasun zinegotziak, emakumeen aurkako indarkeriaren kasuen aurrean erantzun publikoa emateko protokoloa (protokoloa, aurrerantzean) berrikusteko azken kontseiluan egin zen proposamenari erantzunez, adierazi du berdintasun zerbitzuak proposamen bat egin duela. Berdintasun teknikariak azaldu du.

Berdintasun zerbitzuak protokoloaren inguruan tailer bat egitea proposatu du, bi helburu garbirekin:

- batetik, kontseiluko kideez gain beste erakunde eta instituzio batzuek parte hartzea, beste udalerrri batzuek honelako protokoloen inguruan dituzten ekimenak jakin ahal izateko.
- Beste alde batetik, tailerrak kontzeptuak eta ezagutzak bereganatu eta argitzeko balio dezala, eta horrela protokoloa berrikusi ahal izatea, emakumeen aurkako indarkeriazko kasuen aurrean erantzun azkar, koherente eta eraginkorra emateko.

Kontseiluan kanpoko pertsonak parte hartzeari buruz, proposatu da, besteak beste, Eudelek, Emakundek, Maria Naredok (legelaria, indarkeriaren aurkako protokoloetan erreferentea) eta kontseiluan ez dauden udalerriko beste emakume elkarte batzuek parte har dezatela.

Bilguneko ordezkaria ados dago tailerreko proposamenarekin, baina adierazi du kontseiluan gaudenak ez garela erabakiak hartzen eta politikak diseinatzen ditugunak, eta hori egiten dutenak, eledunen batzordean, zein dagokion arduetan (gizonak, naguisi) horiekin partekatu genukeela mintegi hau. Berdintasun zinegotziak erantzun du ez duela uste tailer hau jendearentzat ireki behar denik. EH Bilduko ordezkariak proposatu du unibertsitateak ere tailerrean parte har dezala, gaur egun indarkeria-protokolo batean lan egiten ari garelako eta oso ondo prestatuta dagoen eta ekarpen handiak egin ditzakeen jendea dagoelako.

GUKen ordezkariak, halaber, proposatu du alor juridikoko pertsona erreferenteez gain politikariek ere parte har dezatela tailerrean.

Bestalde, EH Bilduko ordezkariak jakitera eman du, Mesedeetako jaietan izandako erasoen ondorioz, larria iruditzen zaiela Gobernu Batzarreko gizonen batek esatea ukipenak ez direla erasoak. Horri buruz, Berdintasun zinegotziak adierazi du ez dagoela ados bozeramaileen batzarretan esandako gauzak hemen komentatzearekin. Halere, EH Bilduk aipatu duen bozeramaileen batzarrean inork ez zuen auzitan jarri egun hartan jazotako sexu-erasoa, ezta garrantzia kendu ere.

Galde-eskeak

EH Bilduko ordezkariak Emakumeen Etxea eskatu du, baita iaz hura sortzeko hasi zen prozesua bultzatzen jarrai dadila ere.

Kontseiluaren hurrengo batzarra urtarrilaren 11n egitea eta tailerra urtarrilaren 18an egitea proposatu da.